

BATASUNAREN BIDEAN

ikastolak 
herriari

EUSKARA BATUAN GORAZARREA

ERRETERIA
ETA DONOSTIA
LOTUKO DITUEN
GIZA KATEA
MARTXOAK 24
11:00ETAN

ANTOLATZAILEAK



SUSTATZAILEA



BABESLEAK

LAGUNTZAILEAK



2023ko IKASTOLAK HERRIARI

SARRERA.-

IKASTOLAK HERRIARI Euskal Herrian antolatzen diren Ikastolen aldeko 5 jaien marka da. IKASTOLAK HERRIARI marka horren pean antolatzen da BATASUNAREN BIDEAN ekimena.

Orereta ikastolak sustatuta, ekimenak gainerako lurraldeetako babesak jaso du eta horregatik Euskal Herri mailako ekimen modura planteatzen da. Ikastolen bost jaiak antolatzaileak dira, beraz, eta, ikastolez gain, Euskal Herriko gainerako eragile sozio-kulturalak ekimen honetan parte hartzeko ahalegina egingo da. IKASTOLAK HERRIARI ekimenaren baitan dagoen filosofia eta planteamendua Euskal Herriko herritar zein eragileekin bat egitea baita. Bost jaien bitartez, beraz, Euskal Herri osoa ekimen honetan partehartzera deitzen dugu.

TRANSMISIORAKO EKIMENA

Ekimen hau Euskal Herriko herritar guztiei zuzenduta egon arren, gazteengan, ikasleengan arreta berezia jarri nahi dugu.

Euskara Batuak gure herriran izan duen garrantzia goraiatu bakarrik ez, bere testuinguru eta bilakaera historikoa gure ikastetxeetan dauden ikasleei transmititu nahi diegu.

Kontakizun hau egiteko, Euskaltzaindia dugu ekimen honetan bidelagun. Elkarlan honen bidez, Euskaltzaindiak eta Ikastolen Elkartek, euskara batuaren sorreraren inguruko kontakizuna egingo dute, eta horretan parte hartu zuten 15 pertsoneri eskerrak emango dizkie, egindako ekarpenagatik.

EUSKARAREN BATASUNA: EUSKARAZKO HIZTUN ELKARTEA TRINKOTZEKO, BIZIRAUTEN ETA GARATZEKO GILTZARRIA

*Baina nik, hizkuntza larreakoa,
nahi haunat ere noranahikoa:
jakite-hegoek igoa;
soina zahar, berri gogoa;
azal horizta, muin betirakoa.*

Xabier Lizardi olerkariaren Eusko-bidaztiarena poemaren pasarte horrek laburbil dezake Bernat Etxeparek, Axularrek eta beste hainbatek euskarari zioten atxikimendua. Euskarari eusteko, gure hizkuntza hedatzeko eta noranahikoagoa bilakatzeko zegoen beharra, betiere, euskal hiztunak ardatz hartuta eta aurreko belaunaldiek gure aho-etzpainetan utzitakoari jarraitutasuna emanda.

Euskararen batasuna gainerako hiztun elkarteekin munduko herrien plazan, egon nahi duen herriaren borondatearen isla da. Hori horrela, desagertzera eta asimilatua izatera kondenatu zutelarik, herri honek beti izan du, sendoago edo apalago, bizirauteko grina. Nekez uler daiteke herri honek batasunaren inguruan egin duen miraria, hamarkada gutxi batzuetan beste hizkuntza hegemoniko askok mendeetan erdietsitakoa lortu duelako, galbidean zetorren hizkuntza bati eutsiz, bateratuz eta bizitza modernorako paratuz, hain zuzen.

Tokian tokiko mintzaira gainditu behararen kezka izan zuen Joanes Leizarragak Joana III.a Albretakoa Nafarroako erregina kalbinismora bihurtu zelarik, Testamendu Berria euskarara itzultzeko enkargua hartu zuenean. Horretara, bere gidaritzapean jardun zuen lantaldeak halako eredu bateratu bat, lehenengoa, sortzen ahalegindu zen, eremu bateko euskaldunak protestanteen bibliaren edukiaren berri izan zezaten. Kalbinismoa Euskal Herrira hedatzeko saiakerak porrot egitearen ondorioz, bide horrek ez zuen segidarik izan. Alta, ondoko mendeetan bestelako saiakerak egin ziren, Joanes Etxeberriren, Juan Beriainen, Arnaut Oihenarteren, Manuel Larramendiren, Pedro Antonio Añibarroren, Joan Antonio Mogelen, Agosti Xahoren, Jean Baptiste Duhalderen eta beste hainbaten eskutik. Ahalegin horiek guztiek, ordea, ez zuten aurrera egiterik izan, beharbada, mugaz bi aldeetako hiztun elkarte bateratuko zuen egitura politikorik eratzeko aukerarik izan ez guelako. Kontuak kontu, mendeen joanean, geroz eta ahulago zegoen euskaraz mintzo zen hiztun elkarte.

Euskal hiztunak oso-osoan barruratuko zituen erakunde politiko baten faltan, euskararen batasunaren langintzari heltzeko eta gure hizkuntza biziberritzeko, hainbatetan aldarrikatu zen Euskararen Akademia sortu behar zela. Horretan engaiatu ziren, XIX. mendean, Jose Pablo Ulibarri, Jose Francisco Aizkibel, Jean Duvoisin, Anton Abadia, Jose Manterola, Aristides

Artiñano, Jean-Pierre Arbelbide eta abar. Antzeman daitekeenez, aldarria euskal lurralde guztietan ari zen hedatzen.

Garrantzitsua da azpimarratzea hezkuntzaren munduan, Frantziako Errepublikan (1833ko Guizot Legea eta 1850eko Falloux Legea) eta Espainiako Erresuman (1857ko Moyano Legea) eginiko urratsak, derrigorrezko irakaskuntza ezarri eta, Hego Euskal Herrian, irakaskuntza gaztelaniaz eta Ipar Euskal Herrian frantsesez izan zitezen ahalbidetu zuten-eta. Araubideak ez zuen hasieran arrakasta handiegirik izan, harik eta XIX. mendearen azken laurdenean, Frantziako Errepublikan Ferry Legea (1879) onetsi eta, Espainiako Erresuman, II. Karlistaldia igaro zen arte. Erdara hutsezko derrigorrezko irakaskuntzak sekulako astindua ekarri zuen eta euskarazko hiztun elkarteak are gehiago ahuldu zen, horren eraginez. Nolanahi ere, aldi berean, gure hizkuntzari eta kulturari eusteko ahaleginak indartu ziren. Bada, XIX. mendearen bigarren zatian, gainbeherari aurre egiteko, bai eta kulturagintza sustatzeko eta herritarren kontzientziak astintzeko ere, Lore Jokoak antolatu ziren lehenbizikoz Urruñan, 1851n, Abadiaren eskutik. Gerora, lore jokoen hainbat agerraldi egin ziren euskal lurralde guztietan, eta XX. mendearen hasiera arte iraun zuten. Hala berean, XIX. mendearen bukaeran (1896), lehen euskal eskola sortu zen Bilbon, Resurreccion Maria Azkueren ekimenez.

Aldaketa esanguratsua XX. mendearen hastapenean gertatu zen, Euskal Herrian bizi zen aldaketa demografikoarekin, kulturalarekin eta politikoarekin batera. Ingurumari horretan, 1901eko irailaren 16an, Hendaian, eta, biltzar horren jarraipen modura, urtebete geroago, Hondarribian, biltzar esanguratsua egin zen, besteak beste, euskararen ortografia bateratzeko proposamena aztertu zueneko. Alabaina, ez zegoen nahikoa helduleku, heldutasun eta adostasun halako prozesu zail bati ekiteko.

XX. mendearen hasieran indartu zen Euskararen Akademia sortzeko eskakizuna, eta 1918-19 aldian gorpuztu, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako diputazioek eta Ipar Euskal Herriko euskaltzale esanguratsuek -Ipar Euskal Herriko lurraldeek ez baitzuten erakunde erkiderik- sustatuta.

Akademia sortu berriaren inguruabarrean, eztabaida piztu zen erabaki behar zituen eginkizunak zirela eta. Batzuen aburuz, bi erakunde sortu behar ziren, bata, hizkuntzaren kontuak aztertu eta arautuko zituen, eta bestea, euskararen sustapenez arduratuko zena. Horretarako, hainbatek, Institut d'Estudis Catalans delakoaren ereduaren aldeko hautua egin zuten. Nolanahi ere den, azkenean, bi

egitekoak Euskararen Akademiari esleitzea adostu zen. Hori erabakita, erakunde sortu berriak 1921ean egin zuen I. Biltzarra, Durangon. Bertan, Federico Belaustegigoitiak “Euskerazko eskolak” izenburua daraman txostena aurkeztu zuen. Garrantzitsua da kontu hori, Larramendik asmatutako ikasola euskararen biziberritzearen eta batasunaren ardatzetariko bat bilakatu baitzen, ikastolen mugimendua ernamundu zelarik. Txosten horretan, besteak beste, euskal eskolen ezaugarriak, eskolaren mugimendua eta Euskaltzaindiaren arteko loturak, ikasmaterialak eta abar jorratu ziren. 1920. urtearen ostekoetan, ikastolen hedapenak bultzada izan zuen, bai eta euskaraz irakasten zuten auzo-eskolek ere -bereziki, Bizkaian-, harik eta frankismoak ekimena zanpatu zuen arte.

1920. urtean, Arturo Campión eta Piarres Broussain euskaltzainek euskararen batasunari buruzko txostena prestatu zuten, Euskaltzaindiaren eskariz. Ez zuen aurrerabiderik izan, besteren artean, P. Broussain bera 1920. urtean hil zelako. 1930. urtean, R. M. Azkue euskaltzainburuak eredu bateraturako gipuzkera hartzea proposatu zuen, gipuzkera osotua, hain zuzen. Eskualduna eta Herria agerkarietan idazten zutenek, ostera, nafar-lapurtera literarioa landu zuten, zeina Lafittek zehaztu eta arautu zuen 1940ko hamarkadan. Hizkuntza batu horretarako oinarritzat, behe-nafarrera eta lapurtarren eguneroko mintzaira baliatu ziren, gehienbat. Federico Krutwig euskaltzainak, aldiz, Leizarragaren bidea proposatu zuen eredu bateratuaren oinarri gisa. Iritzi bera azaldu zuen Luis Villasante gernikarrak 1951. urtean. 1950eko hamarkada garrantzitsua izan zen, besteak beste, ikastolen mugimendua txingarretatik burua altxatzen hasi zelako, diktadurak kanpora begira erakutsi behar zuen nolabaiteko irekitasunak eta giro ekonomiko eta sozialak lagunduta.

Gertakari horrek zabal-zabal indartu zuen eredu bateratua lortzeko beharra, besteak beste, ikasmaterialak sortzeko, irakasleak prestatzeko eta abar ezinbestekoa zelako eredu bateratu hori. Hamarkada berean, gerra aurreko idazleen ondoan, beste belaunaldi bat nabarmendu zen. Horien artean, Gabriel Arestik, 1960an, Maldan Behera kaleratu zuen. Erdialdeko euskarak eredu hartuta idatzi zuen Arestik, geroko euskara batuaren oso antzekoa dena. Eta molde horren aldeko azaldu ziren hainbat euskaltzain, idazle eta irakasle. Txinparta 1963-64 urtean etorri zen Baionako Euskal Idazkaritzaren eskutik. Halatan, Jose Luis Alvarez "Txillardegia"-ren bultzada tarteko zela, urtebetez lanean aritu ziren Aresti, Jean Louis Davantek, Aingeru Irigaraik, Telesforo Monzonek, Jesus Solaunek eta bestek. Baionako ondorioak argitara eman aurretik argitaratu zuen Arestik Harri eta Herri (1964), garrantzi handiko beste mugarri bat.

Baionako Euskal Idazkaritzak eragina izan zuen, bereziki, euskal idazle gazteen artean. Eta sasoi bateko idazleen aldetik ere (Piarres Lafitte, Piarres Xarriton, Koldo Mitxelena, Imanol Berriatua eta abar) babesa izan zuen. 1968ko otsailean, Arestik proposatu zuen Euskaltzaindiak urrian egin behar zuen biltzar nagusiko gaia Euskararen Batasuna izatea. Horren haritik bidea prestatzeko, Juan San Martinen ekimenez, Gerediaga Elkarteak Euskal Idazleen jardunaldiak antolatu zituen Ermuan, 1968ko ekainean. Idazle gazteek elkarte bat sortzeko adostasuna erakustez gain, ontzat eman zituzten Baionan hartutako zenbait erabaki eta Ermuko Zina izenpetu zuten, batasunaren alde.

Euskaltzaindiaren sorreraren 50. urteurrenaren kariaz, biltzarra egitekoa zuen Euskaltzaindiak, Oñatin. Alabaina, Gipuzkoa salbuespen-egoeran zegoenez, batzarraz eta batzarrera hurreratuko ziren pertsonen egoeraz kezkatu, bilkura Arantzazun egitea erabaki zen, urriaren lehenbiziko astean, Euskaltzaindiak 1919ko urriaren 7an egin zuen lehenbiziko Osoko Bilkuraren gomutan. Oinarrizko txostena paratzeko ardura Mitxelenari eman zitzaion, artean, Salamancako Unibertsitateko irakasle eta hizkuntzalari ezaguna zelarik. Mitxelenak, besteak beste, Baionako Euskal Idazkaritzaren lanak aintzat hartu zituen, bai eta Arestiren lana ere. Manuel Lekuona euskaltzainburuak batasunaren aldeko mezuarekin eman zion hasiera bilkurari.

Arantzazuko bilkuraren ondotik, Rikardo Arregik euskaraz idazteko eta irakurtzeko zailtasunak zituzten euskaldunei zuzenduta, alfabetatze kanpaina abian jartzeko proposamena egin zion Euskaltzaindiari, eta gerora, euskalduntzea gehitu zitzaion alfabetatzeari, Euskaltzaindiaren barneko Alfabetatze Euskalduntze batzordearen bidez. Eredu bateratua hedatzeko ahaleginean, eremu hori ere giltzarri suertatu zen eta lantegi horretan ikastolen mugimendua izan zen habeetako bat, azpiegitura ez ezik irakasleak ere jarri zituelako zeregin horretan.

Hizkuntza bat, zeinahi dela, bateratzen saiatzea ez da langintza erraza. Arantzazun eta Arantzazuren ostean, eztabaida handia piztu zen, idazleen artean, ikastoletan, Akademian bertan eta abarretan. Aldi berria gidatuko zuen beste euskaltzainburu bat behar zela iritzita, M. Lekuonak Villasanteri eman zion lekukoa, 1970. urtean. Horra batasunaren ahalegin modernoaren laugarren zutoina, Aresti, Txillardegi eta Mitxelenarekin batera. Villasantek gidatu zituen Euskararen Akademiaren lanak 1988. urtera arte... baina, izenak izen, batasuna zerbait izan bada herri honek hezurmamitu duen langintza kolektiboa izan da, lurralde eta askotariko elkarte, erakunde eta pertsonak barruratu dituen. Batasuna herri honek auzolanean egin duen egitasmorik handiena eta, duen eraginagatik, eraldatzaileena izan da, besteak beste, euskara eguneratzeko, biziberritzeko eta hitzun kopurua hazteko zimentarri nagusia bilakatu delako. Behinola Itxaro Borda euskaltzainak adierazi zuen batasunak mugaz bi aldeetako euskal hitzunak hurreratzeko eta komunitate gisa trinkotzeko ordainezinezko ekarpena egin duela.

Komeni da gogoraztea Arantzazun hartutako erabakiak gomendio gisa plazaratu zirela. Arantzazun beste erabaki garrantzitsu bat ere hartu zen, 10 urte geroago, berriaz deitutako beste bilkura batean, Arantzazun hartutako erabakien gauzatze maila aztertu eta, egoki irudituz gero, berresteko xedez. Bilkura hori 1978an egin zen, Bergaran. Bergarako bilkura erabakigarria suertatu zen Euskararen Batasun bidea berresteko, indartzeko eta hedatzen laguntzeko. Urte horretan berean antolatu zuen Euskaltzaindiak Bai Euskarari kanpaina... urte horretatik aurrera, Euskararen Batasuna itzulerarik gabeko bidean murgildu zen, bereziki, herri- erakunde nagusiek eredu bateratua onetsi eta haien jardun-eremurako hobetsi zutenean. Behinola gure aurrekoek amestutako hura, euskara noranahikoa bilakatzea inoiz baino indartsuago ageri zen bazter guztietan.


Zinez, mirarizkoa da Euskal Herrian erdietsi duguna. Idazleek, itzultzaileek, aldizkariak, hedabideek, ikastolek, eskolek, euskaltegiek, argitaletxeek, irakasleek, legelariak, zientzialariak... egin dutena. Ondare immaterial edo ukiezina da gure hizkuntza, gu guztiona, denona eta denontzat ehundu dugun euskararen batasuna bera, aukera berriak ireki dizkigulako, gure hizkuntzak bizirik iraun dezan arnasberritu dugulako... eta egun ere batasuna indartzen dihardugu, ur eta arnas berria ematen ari gatzazkiolako gure hizkuntzari, euskararen eraberritzea ez dagoelako geldi, eta, uneoro ari garelako eguneratzen eta egokitzen, jardun-eremu berrietarako prestatzen dugun neurrian.

Guztiona eta denontzat da euskara. Guztion egitekoa da gure aurrekoek gure esku utzitakoari geroa segurtatzea. Mitxelenak zerbaitengatik zioen "euskararen egiazko misterioa iraupena dela, ez jatorria". Beharbada, misterio horren oinarria hauxe da: euskara(z) da gure oraina... bai eta gure geroa ere, guztiok elkarrekin, auzolanean, batasun giroan, saiatzen bagara!

Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak

2023ko otsailaren 13a

GIZA KATEA, MARTXOAREN 24an



- 2023ko martxoaren 24an Errenteria eta Donostia lotuko dituen giza katea egingo dugu, goizeko 11:00ak eta 11:30ak bitartean. Giza katearen luzera 8.226 metrokoa da eta espaloietatik joango da (ez du inolaz ere trafikoa oztopatuko). Errenteriako Gamon Zumardian Koldo Mitxelenaren omenezko eskultura izango da abiapuntua eta Donostiako Alde zaharreko plaza Berria amaiera.
- Giza kateak honako kale hauek erabiliko ditu: <https://www.google.com/maps/d/u/0/edit?mid=10B10A4xhDrtSWL8ixj08sjPXsKOn8Yw&usp=sharing>
- Giza katea osatzeko pertsona bakoitzak 1,2 m har ditzakeela kontuan hartuz guztira 5.782 pertsona behar ditugu. Tarte horiek ikaslez, irakaslez eta herritarrez osatzeko ardura hartzen dugu.
- Aurtengo Nafarroa Oinez, Ibilaldia eta Araba Euskaraz antolatzeaz arduratuko diren ikastolek beraien ordezkaritza bidaliko dute, eta Herri Urratsek eta Seaskak ere berea.
- Euskal Herriko gainerako ikastolei ere gonbidapena luzatuko zaie, jai bakoitza eta zuzendaritzen bidez.
- Euskal Herriko ikastola guztien parte hartzea bultzatu arren, Euskal Herriko beste sareetako ikastetxeei parte hartzeko gonbitea ere luzatuko zaie, batez ere, ibilbidean zehar dauden ikastetxe ezberdinei.
- Euskalgintzako eragileak eta herritarrak espreski parte hartzera gonbidatuko dira.

- Ekimen honen bidez, "EUSKARA BATUA" omenduko da, Euskara Batua gauzatu zuten izenak erreferentziatzen hartuta. Euskaltzaindiak proposatutako 15 lagun izenak hartu dira aintzat. Lagun bakoitzari bidearen tartea eskainiko zaio:

- | | |
|----------------------------|---|
| ○ Koldo Mitxelena | ○ Luis Villasante |
| ○ Resurreccion Maria Azkue | ○ Henrike Knörr |
| ○ Pierre Broussain | ○ Arantxa Urretabizkaia |
| ○ Jose Maria Satrustegi | ○ Arturo Campion |
| ○ Julia Berrojalbiz | ○ Gabriel Aresti |
| ○ Xabier Kintana | ○ Jean- Louis Davant |
| ○ Raimundo Olabide | ○ Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegia" |
| ○ Julene Azpeitia | |

- Parte hartzea, web orrian izena eman beharko da. Ekimen honetan parte hartzea doakoa da.

JENDEAREN KOKAPENA GIZA KATEAN

- Antolatzaileek kudeatuko dute pertsonen kokapena. Izen ematearen bitartez, pertsona bakoitzari giza katean non kokatu behar duen adieraziko zaio.
- Ikasleen behar bereziak jakinarazi beharko dira (adina, mugimendu beharrak), ibilbidean eta kokapenean kontuan hartzeko.
- 100 metroko tartean, taldea antolatzeko pertsona bat egongo da. Berak harrera lanak egingo ditu. Bide guztian zehar 83 anfitrioi egongo dira.
- Multzoka datozen taldeak zein garraiobide baliatuz etorriko diren jakiteko, komunikazio zuzena egongo da. Ahal den neurrian, garraio publikoa erabiltzea aholkatzen dugu. Hala ere, autobusez etorriko gero, autobus bakoitzari jendea non utzi eta non jaso adieraziko diogu. Autobusak non aparkatu ere adieraziko da, hala aukeratzen duten ikastolen kasuetan.

- Antolakundeak bere gain hartzen du ekimenak irauten duen bitarteko erantzukizuna. Behin ekimena amaitu ostean, bakoitzak goiza edo eguna nola beteko duen erabakiko du.

EGUNEKO EGITARAUA (behin behineko proposamena)

- **10:45**ean, Giza kateari hasiera emateko, ekitaldi xume bat antolatuko da Lehendakari Agirre plazan, Erreterian. Bertan, 7 ikasle egongo dira (Euskal Herriko 7 probintziak ordezkatuz), Euskaltzaindiako ordezkari bat, eta Ikastolen ordezkari bat. Hasierako testu bat irakurriko da.
- **11:00-11:30**: Giza katea osatuko dugu.
- **11:30-12:00**: 5 bilguneetarantz mugituko dira parte-hartzaileak.
- **12:00-12:30**: Ekimenari amaiera emateko, giza kateko bidearen 5 guneetan ekitalditxoak antolatuko dira (Erreterian -Lehendakari Agirre Plazan-, Pasaian, Herreran, eta Zurriola ikastolan eta Donostian (Plaza Berrian).
 - Ekitaldia kokatzeko testu bat irakurriko da.
 - Ikasleek beraiek sortutako Tik-tok dantza bat egingo dute.
 - Euskararen erria osatuko dugu, euroko txanponekin (ikusitako dokumentuaren amaieran azalpena).
 - Euskararen koloreen festa egingo dugu..
 - Ikasleek photokola izango dute, argazkiak ateratzeko.
- **Goiz horretan**, Euskaltzaindiako Zuzendaritza bilera antolatuko da Erreteriko Udal Areto Nagusian.
- **15:00**etan Euskaltzaindiako kideek Orereta ikastola bisitatuko dute.
- **17:30**ean, Erreteriko Udal Areto Nagusian ekitaldi instituzionala antolatuko da. Bertan izango dira: (**zehazteke**)
 - Ekimenaren antolatzaileak (Ikastolak Herriari) eta Euskaltzaindiako kideak
 - Erreteriko Alkatea.

- Euskalgintzako eragileen ordezkariak
- Eusko Jaurlaritzako ordezkariak
- Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak
- Erreferentziazko 15 lagunen familia ordezkariak.
- Oarsoaldeko udaletako ordezkariak

EUSKARAREN ERRIA

Kilometroak egunera arte (urriak 1) euskara sustatzeko gauzatu nahi dugun ekimena da Euskararen Errioa. Giza katea ere ekimen honetarako aprobetxatu nahi dugu.

Zertan datza Euskararen Errioa?

Donazioz, jasotako euroen bitartez, euro guztiak bat bestearen ondoan jarrita, Kilometro bat osatu nahiko genuke. Diru hori euskararen alde aritzen den proiektu bat laguntzeko erabiliko dugu.

Giza katean Euskararen Errioak ere bere tokia izango du. Giza katea amaitu eta jendea bost plazetan elkartzerakoan, bost gune horietan, nahi duenak bere euroa Euskararen Errioan jartzeko aukera izango du. Euskara Batuaren aldeko Giza kate ekimen honetara etortzearekin batera, beraz, norberak bere euroa ekartzeko eskatzen dizuegu.